

## **Gizarte Ekimeneko ikastetxeak**

# **Gaur Bilbon izan den manifestazioan ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek deialdi berri bat luzatu diete patronalei eta hezkuntza sailari gatazka bideratzeko**

## **Datorren Maiatzak 30ean Lan Harremanen Kontseiluan izango den bilera batera deitu eta langileen eskaerei erantzungo dioten proposamen eta planteamenduak ekartzeko eskatzen diete**

Martxoak 25eko mahaiaren aurretik, patronalak sindikatuokin izandako aldebiko bileretan, adostasunak erdiestea ahalbideratu zezaketen planteamendu batzuk egitera iritsi zen; mahai negoziatzaile hartan aurkeztu zuten proposamena ordea, planteamendu haietatik aldentutakoa eta onartezina izan zen. Gainera proposamen hura definitibo eta aldaezin bezala aurkeztu zuten.

Jarrera itxi haren aurrean, sindikatuok akordio puntuak non zeuden jasotzen zuen dokumentu bat helarazi genien bai patronal bai hezkuntza sailari ere; ez batak eta ez besteak ez zigun erantzun ordea; beraz egoera desblokeatzeko asmoz bilera batetara deitu genituen LHKan. Sektoreko patronal nagusiak, K.E.ak alegia, bilerara joan ere ez egiteko erabakia hartu zuen, erabaki hura justifikatzeko aitzakia gisa, apirila eta maiatzerako deituta genituen grebak abian zirela erabiliz. Horrela, hezkuntza sailari ere bilerara ez joateko argudioa eman ez.

Apirileko greba egunen ondoren eta maiatzeko greben bezperetan, beste behin ere Kristau Eskola patronalak sindikatuon aldetik adostasunak erdiesteko egindako saiakerak zapuztu zituen. Horrela, ustez diskretoak izaten ari ziren elkarrizketa batzuen berri eman zuen, eta gatazka bideratzeko sindikatuok helarazitako ildotik erabat urruntzen den proposamen bat zabaldu zuen ikastetxeetan, oraindik sindikatu denei helarazi gabe eta sindikatu bakar baten erantzunik ere jaso gabe. Argi dago, fede txarrez eta langileen eskaerei erantzun gabe mobilizazio eta grebak desaktibatzeke helburu soilarekin jokatu zuela berriro ere patronalak, langileen, ordezkarien eta sindikatuen artean nahasmena eta hausturak bilatu nahian adostasunak baino gehiago.

Hezkuntza Sailak berriz, gatazkaren irtenbide egoki batean inplikatu gabe jarraitzen du, eta Otsailean Legebiltzarrak gatazkaren irtenbidean inplikatzeko egindako eskaera ez betetzen. Hezkuntza laguntza espezialisten inguruan esandakoak esan, sindikatuoi ez digute inolako berririk eman, eta patronalak egindako proposamenak bere horretan jarraitzen du. Birkokapenaren inguruko planteamenduan ere ez da aldakaterik egon, mahai gainean jarritakoak birkokapenik bermatu gabe jarraitzen du beraz.

Maiatzak 8 eta 9ko greben ondoren beraz, ez patronal ez Hezkuntza sailaren aldetik ez da langileen eskaererei erantzunez gatazka bideratzeko planteamendu edo proposamen desberdin eta berririk egon.

Egoera honen aurrean, sindikatuok gizarte ekimeneko ikastetxeetako gatazkan langileen eskaerei erantzuna emango dion negoziazioa bideratzeko asmoz, hezkuntza sailburua eta patronalak datorren Ostegunean arratsaldeko 16.00tan Bilboko Lan Harremanen Kontseiluan izango den bilera batetara deitzen ditugu berriro ere; bakoitzak daukan ardura bere gain hartuz, zintotasunez jokatu eta akordioak erdiestea ahalbideratuko duten planteamendu eta proposamenak ekartzera gonbidatuz.

Hala ari zaizkie eskatzen behin eta berriro kalera ateratzen ari diren Gizarte Ekiemeneko ikastetxeetako milaka langile, gaurko Bilboko manifestazioan argi geratu den bezala. Horrela izan ezean, mobilizazioekin jarraitu eta grebak indartu beste biderik ez digute utziko.

Euskal Herrian 2019ko Maiatzak 23an.

## Centros de Iniciativa Social

### **En la manifestación de hoy en Bilbao los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT han hecho un nuevo llamamiento a las patronales y al Departamento de Educación para reconducir el conflicto**

**En ese sentido, les han convocado a una reunión para el próximo 30 de mayo en el Consejo de Relaciones Laborales, y les han instado a que presenten propuestas y planteamientos que atiendan las peticiones de las/os trabajadoras/es**

En las reuniones bilaterales mantenidas con los sindicatos con anterioridad a la mesa de negociación del 25 de marzo, la patronal llegó a hacer planteamientos que podían llegar a posibilitar acuerdos; sin embargo, en aquella reunión de mesa negociadora se presentó una propuesta totalmente alejada de los planteamientos anteriores y que resultaba de todo punto inaceptable. Además se nos presentó como algo definitivo e inalterable.

Ante una posición tan cerrada, los sindicatos trasladamos a patronal y Dto. de Educación un documento donde se recogían los puntos de acuerdo. Iniciativa que no obtuvo respuesta. En vista de lo cual, y al objeto de desbloquear la situación, les convocamos a una reunión en el Consejo de Relaciones Laborales. La principal patronal del sector, Kristau Eskola, tomó la decisión de no acudir a tal reunión, so pretexto de que estaban en marcha convocatorias de huelga para abril y mayo. Con lo que daban argumentos al Dto. de Educación para que tampoco acudiera a la cita.

Tras los días de huelga de abril y en vísperas de las previstas para mayo, la patronal Kristau Eskola frustró nuevamente los intentos de los sindicatos por alcanzar acuerdos. Efectivamente, dio a conocer la existencia de unas conversaciones que se suponía iban a desarrollarse con discreción, y difundió en los centros una propuesta que se apartaba de la línea señalada por la parte sindical para la resolución del conflicto, sin haberla comunicado todavía a la totalidad de los sindicatos y sin haber recibido la respuesta de ninguno de ellos. Quedaron así patentes su mala fé y su objetivo, que se limitaba exclusivamente a la desmovilización y a la desactivación de las huelgas convocadas, sembrando confusión y buscando la ruptura de la unidad sindical más que a la consecución de acuerdos.

El Dpto. de Educación, por su parte, sigue sin implicarse en la búsqueda de una solución aceptable del conflicto, y sin cumplir, por tanto, el requerimiento del Parlamento del pasado febrero, que le instaba a comprometerse activamente en esa búsqueda. A pesar de lo dicho acerca de los especialistas de apoyo educativo, a los sindicatos no se nos ha comunicado nada, y la propuesta patronal permanece sin variaciones. Tampoco se han observado mejoras en el planteamiento sobre recolocación, por lo que sigue vigente lo planteado en la mesa, y que no garantiza la recolocación.

Por tanto, después de las huelgas del 8 y 9 de mayo no ha habido planteamientos nuevos, ni propuestas diferentes que atiendan las reclamaciones del personal y que abran cauces de solución.

Ante esta situación, y con la determinación de impulsar una negociación que solucione las reivindicaciones del personal y resuelva, a la postre, el conflicto, los sindicatos emplazamos nuevamente a la consejera de Educación y a patronales a que acudan a una reunión el próximo Jueves, a las 16:00, en la sede de Bilbao del Consejo de Relaciones Laborales, para que, asumiendo la parte de responsabilidad que les corresponda, acudan con planteamientos y propuestas que posibiliten la consecución de acuerdos.

Así se lo están exigiendo los miles de trabajadores y trabajadoras que una y otra vez están saliendo a la calle, tal y como ha quedado claro nuevamente en la manifestación de hoy. De no ser así, no nos dejarán otra alternativa que seguir por la senda de la movilización y del incremento de la conflictividad.

Euskal Herria, 23 de mayo de 2019.

